

OSASUNA, HAUTESKUNDEAK. Oraindik sei hilabete falta dira hauteskundeetarako, eta bera aurkeztuko den edo ez oraindik argitu ez badu ere, Miranda presidenteak hautagaiak euren egitasmoak aurkezten hasteko garaia dela gogoratu zuen atzo.

Bozak maiatzaren 12an

Data finkatu gabe dago, baina bazkideek Ligako azken jardunaldian bozkatzea da zuzendarien asmoa

Asier Legarda-ereño | IRUÑEA

Donejakue bidea amaitu berri du Javier Miranda Osasunako presidenteak. Berna-hezurra minduta itzuli da Iruñera, baina atzo Taxoara joateko arazorik ez zuen izan. Eta, noski, hainbat egun adierazpenik egin gabe egon ostean, Miranda ez zen isilik geratu.

Kosta egin zitzaion, baina azkenean hauteskundeak gaiari ere eutsi zion Osasunako presidenteak. Mirandaren agintaldia datorren urtarrilean amaitzen zen, baina denboraldi erdian hauteskunde prozesu bat ez izatearren agintaldia maiatza arte luzatzeko eskaria egin zien bazkideei, eta haiek ez zioten ezezirik esan. Hauteskundeak egun zehatza erabaki gabe dago oraindik, baina «apiril inguruan» erabakiko dutela esan ostean, «hauteskunde eguna Ligako azken jardunaldiarekin bat etortzea gustatuko», litzaiokeela onartu zuen Javier Mirandak.

Hauteskundeak behar baino garrantzi gehiago ematerik ez du nahi Mirandak, bere ustez «kirol arloa gai horien gainetik dagoenez, taldearen egoera baita garrantzitsuena». Halere, iragan denboraldian behin baino gehiagotan 2002ko hauteskundeetara ez zela aurkeztuko esan bazuen ere, Mirandak ez du egun bere asmoen berri eman nahi. «Oraindik denbora asko dago, eta pentsatuko dugu» zioen atzo aukera horren harira, baina era berean, Mirandak dei egin zien presidentetza-
ra aurkeztu nahi dutenei: «Nire erabakia jakin aurretik ere aurkeztu beharko lukete hautagaiak, jada hasi daitezke lanean, garaia bada».

Hauteskundeak Ligako azken jardunaldiarekin bat etortzearen asmoa arrazoitu egin zuen Mirandak. Osasunako presidentearen ustez «Osasunak Sadarren Alavesen aurka jokatzeko duenez egunik aproposena litzateke bazkide guztiek botoa eman ahal izateko».

Apirila arte ez da hauteskundeak data zehatza jakingo ziurrenik, baina atzo azalduko asmoak egia bihurtzeko aukera asko dute.

ESANAK

JAVIER MIRANDA (Osasunako presidentea)

«Ni aurkeztu edo ez, hautagaiak euren egitasmoak aurkezten has daitezke jada»

«Apirilean aukeratuko dugu data zehatza, baina maiatzaren 12an egin daiteke bozketa»

«Valentziaren aurkako partida erabakigarria da, eta Sadar beteta ikusi nahi nuke»

DATUA

Osasuna-Alaves partidako egunean, hauteskundeak

Apirila arte data zehatza baieztatuko ez duten arren, Javier Miranda presidenteak zuzendarien asmoa garbi utzi zuen atzo. «Presidente-
tarako hauteskundeak denboraldiko azken jardunaldiaren egunean egitea gustatuko litzaiguke, Alavesek Sadarren jokatzeko duenean» adierazi zuen Mirandak. Oraindik argitzeko dago Miranda bera aurkeztuko den edo ez.

DONEJAKUE BIDEA



MIKEL SAIZ

Jose Maria Arrate eta Javier Miranda Orreagatik Santiagorantz atera ziren egunean.

Euskal taldeak batzeaz harro

Athleticeko presidente ohi Jose Maria Arrate eta Alaveseko presidente Gonzalo Antonekin amaitu berri duen Donejakueko ibilbidea «ahazteztzat» jo zuen atzo Javier Mirandak, eta «elkarri hitzik egin gabeko egun gogorak ere» izan dituztela aitortu arren, orotara «egundoko esperientzia» izan dela baieztatu zuen Mirandak.

Osasunako presidentearen esanetan «normalean inguruko taldeen artean gorrotoak izaten dira nagusi, baita hiri bereko taldeen artean ere, nik aldiz Reala, Alaves, Athletic eta Osasuna talde adiskideak izatea lortu dut, lehendik ere baginen, baina orain are eta gehiago».

Bidaia oinez amaitzerik ez du izan Mirandak, berna-hezurrean haustura txiki bat egin baitzuen. Horrexegatik, Santiagora iritsitakoan santuaren irudiari errieta egin

ziola ere aitortu zuen atzo Osasunako presidenteak: «Bizikletan egin nuen azken bidaia Santiagon bertan santuaren ondoko 14 eskaileretik erori nintzen. Berna-hezurrekoarekin banuen arrazoirik». Baina halere, Mirandak badaki santuak bere eskaerei kasu egingo diela. «Osasunak denboraldi ona egitea eskatu nion santuari, eta senideak zein Osasuna zaleak zaintzea, eta egingo du» esan zuen Javier Mirandak atzo Taxoaren, entrenamenduaren ostean.

Baina, hauteskundeak inguruan hitz egiteaz gain, taldearen egoeraren inguruan ere mintzatu zen Miranda. Gorritxoaren presidentearen esanetan «Osasuna egoera onean da, iragan denboraldian hamalau puntu askoz geroago lortu baitzituen taldeak». Mirandak garbi esan zuen «jaitzierako postuak hiru puntura egon arren, Txapeldunen Ligarakoak lau puntura soilik» dituztela, eta bere ustez «Osasunak sailkapenaren erdi aldean ibiltzeko adina talde badu».

Igande honetan Sadar betetzea espero du Mirandak

Osasunako presidentearen esanetan Valentziaren aurkako partida erabakigarria izan daiteke, «irabaziz gero iragan denboraldian urtarilla arte lortu ez genituen hamazazpi puntu lortuko ditugun heinean, galduz gero urduritasuna zabal baitaiteke». Partida garrantzitsu honetarako salneurri bereziak ezarri zituztela ere gogoratu zuen Mirandak, bide batez, eta «igandean Sadar beteta ikusiko dugula» aurreratu zuen.

Valentziak gizon garrantzitsu asko galdu dituen arren, Miranda ez da fidatzen Rafa Benitzen mutilekin: «Gaur egun ez dago esaterik hau ona izango den edo ez, agian ezohiko jokalariek erabat motibatuta zelairatu daitezkeelako, hala ere irabaziko dugula uste dut», esan zuen.